



AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2004ko uztailaren 8a.

LEKUA: Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa.

DEIALDIA: Lehena **HASIERA-ORDUA:** 19:05 **AMAIERA-ORDUA:** 19:15

BERTARATUAK: **Alkatea Funtziotan**
Eneko Olariaga Arruti

Zinegotziak

Mirari Arruabarrena Elizalde, Maria Elena Legarra Alfaro,
Ramon Etxeberria Aldaz, Martxiel Genoba Solaberrieta, Noemi
Ostolaza Arkauz, Eugenio Cotado Iturain, Aurora Azkue Mujika,
M. Jose San Sebastian Aranburu eta Jesus Jose Rodriguez Pousa.

Idazkari-Kontuhartzailea

Jon Carrera Jauregi

BERTARATU EZ DIRENAK:

Andoni Sarasua Oliben, herritik kanpo dagoelako.



Aztergai zerrenda

- 1.- Heltzea, egoki bada, 2004ko ekitaldian Tokiko Erakundeei zuzendutako diru laguntzen deialdiari Merkataritza Biziberritzeko Plan Bereziak egiteko (Planes Especiales de Revitalización Comercial –PERCOS–).
- 2.- Esleitzea, egoki bada, Orioko Balea eta Abeslari Kaleen berurbanizazioaren obrak egiteko kontratua, proiektu teknikoaren arabera, prozedura irekiz, izapidetze arruntez eta lehiaketaren esleipen modua.
- 3.- Onartzea, egoki bada, 2004ko urtean ordainsarien gehitzeari dagokion Akordio Instituzionala.
- 4.- Akordio proposamena teknologia digital bidezko telebista lokal baten programa kudeaketa zuzena egiteko, Zarauzko eskualdeari dagokion kanalen barruan.



Esan-eginak

1. HELTZEA, EGOKI BADA, 2004KO EKITALDIAN TOKIKO ERAKUNDEEI ZUZENDUTAKO DIRU LAGUNTZEN DEIALDIARI MERKATARITZA BIZIBERRITZEKO PLAN BEREZIAK EGITEKO (PLANES ESPECIALES DE REVITALIZACIÓN COMERCIAL –PERCOS–).

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

HELTZEA, 2004ko ekitaldian Tokiko Erakundeei zuzendutako diru laguntzen deialdiari Merkataritza Biziberritzeko Plan Bereziak egiteko (Planes Especiales de Revitalización Comercial –PERCOS–), aurreikusitako ekintza bakoitzaren deskribapena, kostua, eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa eta ezarritako lehentasuna ondorengo izanik:

1. “Irisgarritasun egitasmoa eta lehen faseko obrak”, **ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA HAMASEI MILA ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU eurokoa (896.773€), -B.E.Z. barne**, izanik exekuzio materialaren kostua, azterketaren kostu netoari dagokionez Irisgarritasun egitasmoaren % 75eko diru-laguntza eskatu da, berez exekuzio materialari dagokionez 86.000 euroko (B.E.Z. barne) kostua izanik, eta lehen faseko obren exekuzioari dagokienez, 810.773 euroko (B.E.Z. barne) balioan, 0 kotaren exekuzio materialaren % 100 estaliko duen diru-laguntza eskatu da.
2. “Hiri altzariak II”, **HAMAZORTZI MILA eurokoa (18.000€), -B.E.Z. barne**, izanik exekuzio materialaren kostua, eta 0 kotaren exekuzio materialaren % 100 estaliko duen diru-laguntza eskatu da.
3. “Komertzioen fatxadak apaintzeko Kanpaina”, **ZAZPI MILA ETA BERREHUN eurokoa (7.200€), -B.E.Z. barne**, izanik exekuzio materialaren kostua, eta 0 kotaren exekuzio materialaren % 100 estaliko duen diru-laguntza eskatu da.



4. “Kale Nagusian oinezkoek lehentasuna duten lurzorua aldaketa”, **HIRUROGEITA BI MILA eurokoa (62.000€), -B.E.Z. barne**, izanik exekuzio materialaren kostua, eta 0 kotaren exekuzio materialaren % 100 estaliko duen diru-laguntza eskatu da.

Aurreikusitako lau (4) ekintza hauen kostua guztira **BEDERATZIREHUN ETA LAUROGEITA HIRU MILA BEDERATZIREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU eurokoa da (983.973€),-B.E.Z. barne-**.

2. ESLEITZEA, EGOKI BADA, ORIOKO BALEA ETA ABESLARI KALEEN BERURBANIZAZIOAREN OBRAK EGITEKO KONTRATUA, PROIEKTU TEKNIKOAREN ARABERA, PROZEDURA IREKIZ, IZAPIDETZE ARRUNTEZ ETA LEHIAKETAREN ESLEIPEN MODUA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du, hau da, Orioko Balea eta Abeslari kaleen urbanizazio obrak kontratatzeko Plegu Baldintza Ekonomiko-Administratibo Partikularren berri, proiektu teknikoaren arabera, prozedura irekiaz, ohiko tramitazioaz eta lehiaketa bidez, 2004ko maiatzaren 7an Gipuzkoako Foru Aldundiaren 85. Aldizkari Ofizialean argitaratu zena.

Obrak esleitzeko irekitako baliozko epean, ondorengo lehiakideak aurkeztu dira aipatu kontrataziorako:

- 1.- CONSTRUCCIONES DUMBOA, S.A.
- 2.- A.B.E.E. (U.T.E.), “OTEGUI GAZTAÑAGA” eta “ZUAZNABAR, S.L.” enpresek osatua.
- 3.- CONSTRUCCIONES AMENABAR, S.A.
- 4.- A.B.E.E. (U.T.E.), “URBANIZACIONES IRUÑA, S.A.” eta “CONSTRUCCIONES DONOSTI, S.A.” enpresek osatua.

Ikusita kontratazio mahaiak aho batez Orioko Balea eta Abeslari kaleen birurbanizazio obrak egiteko kontratuaren esleipena **AMENABAR, S.A.** merkataritza-sozietateari esleitzea proposatzen duela, puntuaketa altuena lortu duen proposamenaren egilea izanik, Baldintza Plegu Ekonomiko-Administratibo Bereizleen 9. artikulua jasotako irizpideak jarraituz eta Udal Zerbitzu Teknikoak jasotako txostena jarraituz.



Udalbatza jakinaren gainean geratzen da eta Kontratazio Mahaiaren proposamenaz, eta eztabaidatu ondoren, gerturatutako lagunek **AHO BATEZ**, guztira **BAIEZKO HAMAR BOTO**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin udalbatza hamaika lagunek osatzen baitute, **ERABAKI DU**:

LEHENENGO.- Baliozkoa **DEKLARATZEA** 2004ko ekainaren 7an egindako pleguen irekiera.

BIGARREN.- BEHIN BETIKO ESLEITZEA Orioko Balea eta Abeslari kaleen birurbanizazio obrak egiteko kontratua, egitasmo teknikoaren arabera, **AMENABAR, S.A.** merkataritza-sozietateari, lanen esleipen prezioa **BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU MILA BEDERATZIREHUN ETA BERROGEITA HAMAHIRU euro eta HOGEITA HAMAZORTZI zentimo (273.953,38.-)** izanik –Gastu Orokorrak, Irabazi Industrialak eta B.E.Z. barne–.

HIRUGARREN.- ITZULTZEA behin behineko fidantzak lehiaketa honetan aurkeztutako lizitatzailerei.

LAUGARREN.- JAKINARAZTEA Udalaren ebazpen hau enpresa lizitatzailere guztiei, jakinaren gainean egon daitezen, dagozkion ondorioak eta errekurtsio legalak izan ditzan.

3. ONARTZEA, EGOKI BADA, 2004KO URTEAN ORDAINSARIEN GEHITZEARI DAGOKION AKORDIO INSTITUZIONALAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

ONARTZEA, 2004ko urtean ordainsarien gehitzeari dagokion akordio instituzionala.

Akordio instituzionalak honela dio hitzez hitz:

LEHENENGOA

Hitzarmen hau 2004ko urtarrilaren batetik 2004ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean.



BIGARRENA

Oro har, 2004. urterako soldatak %2 igoko dira, Euskadiko toki eta foru erakundeetako langileentzako 2003ko urteko soldata osoen aldean.

HIRUGARRENA

Aurrean azaldutakoa alde batera utzita, 2004. urtean langile horiei banan-banan ezarriko zaie lanpostu-mailako osagarriak aparteko ordainsarrietan duen eraginaren gehikuntza, aplikatu beharreko oinarritzko aurrekontu-legerian aurreikusitako zenbatekoaren arabera eta lan-kontratuko langileei dagokien kopuru berean.

LAUGARRENA

Era berean, ezarri beharreko oinarritzko aurrekontu-legerian xedatutakoaren arabera, fondo gehigarria eratzen da, helburuak betetzeko hobekuntza nabarmenak eta lanpostuen eragingarritasuna eta erantzukizuna handitzeko jarduera nabariak saritzeko.

BOSGARRENA

2004. urtean, pentsio-planetara egiten diren ekarpenei eutsiko zaie. 2004. urteari begira, hirugarren eta laugarren erabakietan aurreikusitako soldata-igoerei dagokien zenbateko orokorra erakundearen soldata-multzoaren %1,2koa izango da gehienez ere.

SEIGARRENA

Langileen gainerako lan-baldintzei dagokienez, aurreko hitzarmenetako homogeneotasun-parametroei eutsiko zaie, eta toki-administrazio batek ere ezin izango ditu aldatu.

ZAZPIGARRENA

Era berean, aurreko erabakiak erakundeetan, halabeharrez, deitutako negoziaketa-mahaietan aurkeztuko direla hitzartzen da, organo eskudunen erabakien bidez promulgatu baino lehen.

ZORTZIGARRENA

Erakunde-alderdiak jendaurrean adierazi nahi du Euskal Autonomia Erkidegoko foru eta toki erakundeetako lan-harremanak arautzeko esparru berrirako proposamen osoa sindikatueta solaskideekin egiteko eta negoziatzeko konpromisoa hartzen duela, onartu berri diren oinarrietan jasotako printzipioak eta helburuak kontuan hartuta. Horrela, bada, arautzeko esparru berriaren gaineko adostasuna berreskuratu ahal izango da sindikatueta ordekariekin.



4. AKORDIO PROPOSAMENA TEKNOLOGIA DIGITAL BIDEZKO TELEBISTA LOKAL BATEN PROGRAMA KUDEAKETA ZUZENA EGITEKO, ZARAUZKO ESKUALDEARI DAGOKION KANALEN BARRUAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

ONARTZEA teknologia digitzeko tokiko telebista programa baten kudeaketa zuzena, Zarauzko mugaketari dagokion anitzaren barnean, bai eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari **ESKATZEA** emanaldirako frekuentziaren erreserba egitea. Hori guztia, besteak beste, kontuan izanik martxoaren 12ko 439/2004 Errege Dekretuaren 8. artikuluan ezarritakoa, tokiko telebista digitalaren Estatuko Plan Teknikoa onartzen duena (2004ko apirilaren 8ko 85. zenbakidun E.A.O.-an (B.O.E.) argitaratua), hasiera batean mugaketa bakoitzari esleitutako kanal anitzak, besteak beste hedadura eremua eta gehienezko potentzia irradiatua, Orioko udalerriri dagokionez, Zarauzko mugaketaren barne sartzen da (2004-04-08ko 85. zenbakidun E.A.O.-ren (B.O.E.) 14715 orrialdea) eta ondorengo deskribapena du:

Erreferentzia: TL06SS

Izendapena: Zarautz

Kanal anitza: 35

Gehienezko potentzia irradiatua: 100W

Eremua: Zarautz, Azpeitia, Azkoitia, Zumaia eta Orio.

Eremu osoa: 65,17 km².

Biztanle dentsitatea: 398 biztanle/km².

Horrenbestez, bilkurari amaiera ematen zaio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA

IDAZKARIA